

# Egoera ekonomikoa eta Merkatuak ASTEKO LABURPENA

2017ko urriaren 30etik azaroaren 03rako astea

---

## ➤ **INGURU MAKROA:**


- ❖ ASTEKO DATUEN PODIUMA
- ❖ KASU DATORREN ASTEAN GAI HAUEI...

## ➤ **ASTE HONETAN MERKATUETAN**

## ➤ **GURE IKUSPEGIA**

## ASTEKO DATUEN PODIUMA

### EUROPA: EUROGUNEAREN BPGd



### Datuaren analisia

Euroguneko BPGd-ak ordura arteko hazkunde boladari eutsi zion urteko hirugarren hiruhilekoan; % 0,6ra iritsi zen aurreko % 0,7tik. 2016ko hiruhileko berdinarekin alderatuta, Euroguneko BPGd-aren hazkundera % 2,5ekoa izan zen, aurreko hiru hilabeteetako urte arteko hedapen-erritmoa baino bi hamarren gehiago.

### Adierazlearen azalpena

Eurostatek argitaratzen du Barne produktu gordina (BPGd). Herrialde baten ekoizpena eta hazkunde ekonomikoa neurtzeko erabiltzen den adierazle ekonomiko bat da. Eurogunek ekoizten dituen azken zerbitzu edo ondasunen batuketara eginez lortzen da, eta denbora-tarte jakin batean erregistratzen da. Zerbitzu edo ondasun horiek lurralde nazionalen ekoiztutakoak izan behar dute, hala enpresa nazionalen nola atzerrikoen eskutik.

## ASTEKO DATUEN PODIUMA

### AEB: FEDen BILERA

PROXIMAS REUNIONES	PROBABILIDAD DE SUBIDA	PROBABILIDAD DE RECORTE	DONDE SE SITUARÁN LOS TIPOS				
Reunión	Hike Prob	Cut Prob	0.75-1	1-1.25	1.25-1.5	1.5-1.75	
12/13/2017	92.3%	0.0%	0.0%	7.7%	92.3%	0.0%	
01/31/2018	92.4%	0.0%	0.0%	7.6%	91.6%	0.8%	
03/21/2018	96.7%	0.0%	0.0%	3.3%	43.6%	52.7%	
05/02/2018	96.9%	0.0%	0.0%	3.1%	41.6%	52.2%	
06/13/2018	97.9%	0.0%	0.0%	2.1%	29.2%	48.8%	
08/01/2018	98.0%	0.0%	0.0%	2.0%	27.9%	47.9%	
09/26/2018	98.3%	0.0%	0.0%	1.7%	23.3%	44.4%	
11/08/2018	98.4%	0.0%	0.0%	1.6%	22.1%	43.2%	
12/19/2018	98.8%	0.0%	0.0%	1.2%	17.3%	38.3%	

### Datuaren analisisa

Fed-ek bilera egin zuen asteen, eta interes-tasak bere horretan mantentzeko erabakia hartu zuen, % 1,0 eta % 1,25 bitartean. Horrez gain, tasen hurrengo igoera egiteko unerik egokiena abenduko bilera dela adierazi zuen. Txostenaren arabera, gainera, lan-merkatuak indarra irabazten jarraitu zuen, eta jarduera ekonomikoa erritmo sendoan hazi zen, baldintza klimatologikoen kontrako eragina gorabehera. Inflazioari dagokionez, Fed-ek adierazi zuen % 2tik behera kokatuko dela epe laburrean, eta % 2an egonkortuko dela epe ertainean.

### Adierazlearen azalpena

Federal Reserve System (FED) Estatu Batuetako banku-sistema zentrala da. Herrialdeko diru-politikako erabakiak hartzea, banku-erakundeak ikuskatu eta arautzea, finantza-sistemaren egonkortasuna mantentzea eta gordailu-erakundeei, Estatu Batuetako gobernuari eta atzerriko erakunde ofizialei finantza-zerbitzuak eskaintzea dira bere egitekoak. Bere diru-politikaren bitartez, enplegu erabatekoa, prezioen eraginkortasuna (inflazioa eta deflazioaren prebentzioa barne) eta epe luzean interes-tasak moderatzea dira lortu nahi dituen helburuak.

## ASTEKO DATUEN PODIUMA

### AEB: ENPLEGUAREN TXOSTENA



#### Datuaren analisia


Estatu Batuetako enpleguaren asteko txostenak irakurketa bikoitza izan zuen urrian. Alde batetik, aurreikusitakoa baino lanpostu gutxiago sortu baziren ere (261.000 vs esperotako 310.000), 90.000 lanpostu gorantz berrikusi ziren aurreko bi hilabeteetan. Bestetik, soldatek urte arteko % 2,4 egin zuten behera, aurreko % 2,9tik, eta parte-hartze tasa % 63,1etik % 62,7ra jaitsi zen. Guztiarekin ere, langabezia-tasa % 4,1eraino jaitsi zen ustekabean, aurreko hileko % 4,2aren aldean.

#### Adierazlearen azalpena

Enplegu-txostena hilerok argitaratzen du Estatu Batuetako Lan Sailak. Estatu Batuetako lan-merkatuaren egoerari buruzko txosten osatu bat da, eta hainbat datu aurki daitezke bertan; horien artean nabarmenenak: enpleguaren sorrera (nekazaritza-sektorea kanpo utzita), langabezia-tasa eta soldaten bilakaera. Txosten honi esker, Estatu Batuetako ekonomiaren bilakaeraren gaineko pronostiko bat egin daiteke. Lan-merkatua hazten ari bada, herritarren errenta erabilgarria handitu egiten da. Beraz, kontsumitzailearen gastua igo daiteke, BPGd-aren igoera bat eragingo lukeena, eta, ondorioz, herrialdearen ekonomiaren hobekuntza.

## ASTEKO DATUEN PODIUMA

### BoJ ETA BoEren BILERAK



### Datuaren analisia

Japoniako Bankuak bere horretan mantendu zituen orain arteko politika hedakorrak. Gainera, 2017 eta 2018ko inflazio aukerak apaldu zituen, eta gorantz berrikusi zituen 2017ko hazkunde aurreikuspenak.


Ingalaterrako Bankuari dagokionez, erakundeak 25 op igo zituen tasak, % 0,5eraino, lehen aldiz 2007tik. Aktiboak erosteko planari loturiko berrinbertsioetan, ordea, ez zuen aldaketarik egin. Horrez gain, BPGd-aren hazkunde aurreikuspenek gora egin zuten, % 1,5eraino 2017ko 4. hiruhilekoan eta % 1,7raino hurrengo hiru ekitaldietan.

### Adierazlearen azalpena

Japoniako Banku Zentrala da BoJ. Banku-sistema osoa kontrolatzen du, nahiz eta herrialde industrializatuetako banku zentral gehienek baino autonomia txikiagoa izan. Horra bankuaren zenbait helburu: diru-papera jaulkitzea eta kudeatzea; diru-politika egitea; Altxor Publikoko baloreekin eta Administrazioarekin loturiko jarduerak; datuak biltzea, azterketa ekonomikoak eta ikerketa jarduerak. Ingalaterrako Bankua (BoE) Erresuma Batuko banku zentrala da. Herrialdearen diru-politika zehazteaz arduratzen da, bere Diru Politikako Batzordearen bidez. Erresuma Batuko Gobernuaren Banku Zentrala da, eta, besteak beste, libera esterlina jaulkitzea eta bere zirkulazioa kontrolatzea dira bere eginkizun nagusiak.

## ASTEKO DATUEN PODIUMA

### TXINA: MANUFAKTUREN ETA ZERBITZUEN PMIa



#### Datuaren analisisa

Txinako manufaktura-sektorearen hazkundea espero baino gehiago hoztu zen urrian (51,6 vs esperotako 52,2), kutsadura-arau zorrotzen ondorioz. Izan ere, burdingintza enpresa, galdategi eta fabrika askok ekoizpena murriztu behar izan dute neguan.

Txinako zerbitzu industriaren hazkundea ere geldotu egin zen urrian, nahiz eta hedapen irmoa mantendu. Horiek horrela, manufaktura-sektorekoa ez den indizea 54,3ra jaitsi zen urrian, iraileko 55,4tik; mailarik handiena 2014ko maiatzetik.

#### Adierazlearen azalpena

PMI Manufaktura/Zerbitzuak indizeak hilero erosketen profesionali eta enpresetako exekutiboek manufaktura-sektorearen egoerari buruz egiten zaien inkesta bat du oinarri. Fabrikazioaren/zerbitzuen sektorearen aldean ekonomiaren egoera zein den neurtzeko balio du. Adierazle ekonomiko aurreratu bat da, hau da, beste adierazle batzuek etorkizunean izango duten bilakaera aurreratzeko balio digu; kasu honetan, esate baterako, BPGd-arena. Emandako datua 50etik gorakoa bada, ekonomia hazten ari dela esan nahi du; hortik beherakoa bada, ordea, ekonomia uzkuratzen ari den seinale.



## KASU DATORREN ASTEAN GAI HAUEI...

Data	Eremua	Adierazlea	Aurreikus pena
11/06	Japonia	PMI Nikkey composite Japonia	--
11/06	Alemania	MoM fabriken aginduak	-% 1.1
11/06	Espainia	Markit PMI Composite Espainia	54.6
11/06	Italia	Markit/ADACI Italia Composite PMI	54.3
11/06	Frantzia	Markit PMI Composite Frantzia	57.5
11/06	Alemania	Markit/BME Alemania Composite PMI	56.9
11/06	Eurogunea	Markit PMI Composite Eurogunea	55.9
11/06	Eurogunea	Sentix inbertsiogilearen konfiantza	31.0
11/06	Eurogunea	Hileko ekoizpenaren prezioen indizea	% 0.4
11/07	Alemania	Hileko SA industria-ekoizpena	-% 0.8
11/07	Italia	Hileko xehekako salmentak	% 0.2
11/07	Alemania	Markit PMI Alemaniako xehekako merkataritza	--
11/07	Eurogunea	Markit Eurogunea xehekako merkataritza PMI	--
11/07	Frantzia	Markit PMI Frantziako xehekako merkataritza	--
11/07	Italia	Markit PMI Italiako xehekako merkataritza	--
11/07	Eurogunea	Hileko xehekako salmentak	% 0.6
11/08	Japonia	CI lider indizea	106.6
11/08	Frantzia	Balantza komertziala	-4700m
11/08	Espainia	Hileko industria-ekoizpena	-% 0.2
11/08	Txina	Balantza komertziala	\$39.20b
11/09	Japonia	BoP oinarrizko merkataritza balantza	¥832.5b
11/09	Txina	Urte arteko KPIa	% 1.7
11/09	Txina	Urte arteko ekoizpenaren prezioen indizea	% 6.6
11/09	Alemania	Balantza komertziala	22.0b
11/09	Estatu Batuak	Hasierako langabezia-eskaerak	232k
11/09	Estatu Batuak	Hileko handizkako merkataritza-salmentak	--
11/09	Estatu Batuak	MoM handizkako inbentarioak	% 0.3
11/10	Frantzia	Hileko industria-ekoizpena	% 0.5
11/10	Italia	Hileko industria-ekoizpena	-% 0.4
11/10	Erresuma Batua	Hileko industria-ekoizpena	% 0.3
11/10	Erresuma Batua	Balantza komertziala	-£4600
11/10	Estatu Batuak	Sentimendua Michiganeko Unibertsitatea	100.6

# ASTE HONETAN MERKATUETAN

## BURTSAK:

Burtsako indizeen balantzea nahiko positiboa izan zen astearren bukaeran Europan eta AEBetan, eta mistoa Asian. Emaiza korporatiboez eta Banku Zentralen bilerek ekarri zuten merkaturaren arreta. Fed-ek interes-tasak bere horretan mantentzea erabaki zuen, eta hurrengo tasen igoera egiteko unerik egokiena abenduko bilera dela adierazi zuen. Japoniako Bankuak ere bere horretan mantendu zituen orain arteko politika hedakorrak. Gainera, 2017 eta 2018ko inflazio aukerak apaldu zituen, eta gorantz berrikusi zituen 2017ko hazkunde aurreikuspenak. Ingalaterrako Bankuak, berriz, 25 op igo zituen tasak, lehen aldiz 2007tik. Aktiboak erosteko planari loturiko berrinbertsioetan, ordea, ez zuen aldaketarik egin. AEBetan, bestalde, errepublikanoek euren zerga-plana aurkeztu zuten Kongresuan, Trumpek agindutako zergen murrizketak barne hartzen dituena. Gainera, Trumpek Jerome Powell izendatu zuen Yellenen ondorengo izateko; Senatuak berretsi beharreko erabakia. Ezagutzen diren enpresen emaitzei dagokienez, nabaria izan da hazkundera, AEBetan batez ere.

INDIZEAK	PREZIOA	%Aldaketa astean	%Ald 2017
MSCI WORLD (Local)	1.558,14	0,53	14,21
IBEX 35	10.357,80	1,57	10,75
DJ EURO STOXX 50	3.689,96	1,03	12,14
DJ STOXX 50	3.237,05	0,85	7,52
FTSE	7.560,35	0,74	5,85
S&P 500	2.587,84	0,26	15,59
Dow Jones	23.539,19	0,45	19,11
NASDAQ	6.764,44	0,94	25,66
NIKKEI 225	22.539,12	2,41	17,92
MSCI EMERGENTES (Lo	60.419,93	1,21	26,80
MEXBOL	48.534,84	-1,37	6,34
BOVESPA	73.915,42	-2,71	22,73
SHANGHAI	3.531,21	-1,32	8,67
Rusia Rts Moscú	1.109,38	-0,83	-3,73

## ERRENTA FINKOIA:

Europa eta Amerikako bonuen errentagarritasunak behera egin zuten tarte luzeetan. Alemaniako hamar urterako tasak 2 op egin zuen behera, % 1,47raino. Espainian, bestetik, Kataluniako egoeraren baretzeak zor subiranoan eta arrisku-priman eragina izan zuen. Bada, hamar urterako tasak 11 op egin zuen behera, % 1,47raino, eta arrisku-prima 111 puntutan kokatu zen. AEBetan, Yellenen ondorengoa Powell izango zela iragarri zenean, tasek behera egin zuten, eta hamar urterako bonuak % 2,33an itxi zuen, 7 op jaitsi ondoren. Kredituaren diferentzialak, aldiz, estutu egin ziren.

Gobernuen tasak	Maila	Aldaketa astean	Ald 2017
ALEMANIA 2 URTE	-0,75	0,02	0,01
ESPAINIA 2 URTE	-0,37	-0,05	-0,09
AEB 2 URTE	1,61	0,03	0,43
ALEMANIA 10 URTE	0,36	-0,02	0,16
ESPAINIA 10 URTE	1,47	-0,11	0,09
AEB 10 URTE	2,33	-0,07	-0,11
ALEMANIA 30 URTE	1,24	-0,04	0,30
ESPAINIA 30 URTE	2,74	-0,12	0,12
AEB 30 URTE	2,81	-0,11	-0,25
<b>Kreditu-spreada (op)</b>			
MARKIT ITRX EUROPE 12/22	49,70	-2,19	-22,34
MARKIT ITRX EUR XOVER 12/22	223,67	-10,37	-65,03

## DIBISAK/LEHENGAIK:

Yellenen ondorengoa Powell izango zela jakin zenean, dibisa amerikarrak behera egin zuen, eta astearren amaieran % 0,11ko balio-galtzea izan zuen euroaren aldean. BoE-ren mezu arinagoak, tasak pixkana igoko zirela zabaldu zenean, liberaren balio-galtzea eragin zuen. Lehengaiak dagokienez, petrolioaren prezioa % 2,78 igo zen, LPEEren murrizketak 2018ko martxo eta gero hedatzearen aukeren aurrean. Urrea, aldiz, % 0,33 jaitsi zen, 1.269,72 \$/ontza mailaraino.

Dibisak	Maila	% Aldaketa astean	% Ald 2017
Dolarra / Euroa	1,16	0,11	10,01
Yena / Euroa	132,58	0,36	7,75
Libera / Euroa	0,89	0,47	3,95

Lehengaiak	Maila	% Aldaketa astean	% Ald 2017
Petrolio (Brendt)	62,02	2,78	11,93
Urrea	1.269,72	-0,33	10,19



Kutxabank Gestión SGIIC SAUk prestatu du agiri hau, eta horretarako, fidagarriak diren informazio-iturriak erabili ditu. Hala ere, ezin du ziurtatu bertan jasotako informazioa eta iritziak erabat zehatzak, zuzenak eta osoak direnik, eta ez du bere gain hartzen horren gaineko inolako erantzukizunik. Agiri honetan agertzen diren informazio eta iritziak edonoiz aldatu daitezke, aurretik horren berri eman beharrik gabe. Kutxabank Gestión SGIIC SAUk ez du agiri honen eta bere edukien erabilerak sortu ditzakeen kalteen gaineko erantzukizunik hartzen. Finantza-merkatuetan eragiketak egiteak arrisku handiak sortu ditzake, eta posizioa etengabe zaindu behar da. Txosten hau ez da eskaintza bat ez eta finantza-aktiboak erosi edo saltzeko eskaera bat ere. Agiri hau zu informatzeko besterik ez da, eta hirugarrenek ezin dute berregin edo banatu. Era berean, ezin da, inolako aitzakiapean, osorik edo zati bat argitaratu.